

## Udaleku itxiak




Udaberri usaina igartzen hasi baino ez garenean, udako planak egiten dihardugu jadanik. Bai, hala da, udalekuek berebiziko protagonismoa hartzen dute sasoi honetan: lo lekuak aukeratu, ekintzak lotu, ibilbideak osatu, begiraleekin antolaketa zehaztu eta beste hainbat betebeharrak. Gogotsu ekin diogu lanari, eta aurten eskaintza zabala dugu: adin ezberdinetako ume eta gazteen interesari egokitzeko asmoz hiru udaleku antolatuko ditugu.

Gaztetxoentzako (LH 3. mailatik 6. mailara) udaleku finkoa izango dugu Ozaetan (Araba), eta asko dira bertan burutuko ditugun ekintzak: eskalada, tirolina, irteerak, bizikleta martxa, vivac, arku jaurtiketa, gaubelak...

Nagusiagoentzako udaleku ibiltari bi antolatu ditugu: DBH 1. mailatik 3. mailara bitartekoek Urduñan hasi eta Santoñara arteko ibilbidea osatuko dute, hainbat etapatan banaturik, eta abenturaz betetako momentuak biziko dituzte Lasarteko gazteekin batera. DBH 3. eta 4. mailakoek, aldiz, Garaion ekingo diote ibilbideari eta hasierako hiru egunak bertan igaro ondoren, kostarako bidea hartuko dute Bakiora heldu arte. Kosta ala kosta du izena udaleku honek eta Arrasate, Lasarte eta Bergarako gazteekin batera ibiliko dira gure gazteak.

Naturaz gozatzeko aukera izateaz gain (ur ekintzak, mendi ibilbideak, eskalada, ginkanak...), ibilbidean zehar animazioa ere izango dute eta tarteka beste ekintza batzuk ere bai: kontzertuak, antzerkiak, hitzaldiak, jaialdiak... Beraz, ez dute aspertzeko tarterik izango eta egunero zerbaite berria bizitzeko aukera izango dute!



## Udaleku irekiak

Aurrekoek gain, uda garaian Durangon eta inguruko herrietan gelditzen diren umeek ere euskarazko aisialdia eskainiko diegu.

Durangaldeko herrietan udaleku irekiak kudeatuko ditugu, udalekin elkarlanean batzuetan eta lehiaketa bidez besteetan. Aurten ere ume eta gaztetxoekin adinaren arabera ekintza eta interesgune berri eta motibagarriak bilatuko ditugu, eta ziur euren gustuko eskaintza erakargarria osatuko dugula.

BERBARO  
Udalekuak 09



BERBARO  
Udalekuak 09

## Hamaika ARRAZOI eta mila aukera euskara elkarrekin Udarroan

### Udaleku finkoa

Tokia: OZAETA  
Data: uztailearen lehen 17ra  
Adina: LH 3 - LH 6  
Prezioa: bazkideek 210€  
bazkide ez direnek 235€  
Elkarre antolatzaileak: BERBARO (Durango)  
EKINTZA nagusiak: GARAIOKO hondartzara irteera, tirolina, arku jaurtiketa, eskalada, bizikleta martxa, vivac, GARAIOKO igarilekura irteera, parke ornitologikoa bisita gidatua...

### Udaleku ibiltaria

Tokia: URDUÑA - SANTOÑA  
Data: uztailearen 17tik 28ra  
Adina: DBH 1 - DBH 3  
Prezioa: bazkideek 210€  
bazkide ez direnek 235€  
Elkarre antolatzaileak: BERBARO (Durango) eta TITAKUN (Lasarte)  
EKINTZA nagusiak: Ur eta abentura ekintzak, mendi ibilbideak, gaubelak...

### Kosta ala kosta

Udaleku ibiltaria  
Tokia: GARAIO - BAKIO  
Data: uztailearen 17tik 17ra  
Adina: DBH 3 - DBH 4  
Prezioa: bazkideek 210€  
bazkide ez direnek 235€  
Elkarre antolatzaileak: BERBARO (Durango), JARDUN (BERGARA), TITAKUN (Lasarte) eta TXATILIPURDI (ARRASATE).  
EKINTZA nagusiak: Eskalada, ur ekintzak, mendi ibilbideak...

## Izena emateko epea: maiatzaren 15era arte


Informazio gehiago: [WWW.BERBARO.COM](http://WWW.BERBARO.COM) [gazteak@berbaro.com](mailto:gazteak@berbaro.com) Tel. 94 620 25 40 / 94 620 19 18



## Etorkin helduak euskara ikasten

### AISA harrera-ikastaroa

2005ean egin zen lehengo harrera-ikastaroa, eta harrezkero urtero egin da huts egin barik. Guztira 6 ikastaro egin dira eta 31 jatorri desberdineko 130 etorkinek hartu dute parte. Udaleko Euskara eta Inmigrazio Sailek antolatzen dituzte ikastarook, eta Udal Euskaltegia eta AEK-ko Abarrak euskaltegia arduratzen dira emateaz. Aurtengo lehenengoa Aste Santu ostean hasiko da, apirilaren 21ean eta ekainaren 25ean amaitu. Izena emateko nahikoa da Udaleko Euskara Sailera jotzea, bai telefonoz deituta, bai bertara joanda, Udaletxera edo Pinondo etxera.



## Julene Azpeitia Lehiaketa

Julene Azpeitia lehiaketaren hamaikagarren edizioa ipini du abian Udalak. 10 urtetik 17 bitarteko durangar gazteei euskaraz idazteko zaletasuna pizteko sortu zen, gehienbat. Baina badu nagusien kategoria bat ere, 18tik gorakoa. Idazten jartzea zaila egiten zaigun honetan, inoiz baino pozago hartzen ditugu gazteen idazlanak, bertsoak, olerkiak... Gazteak gehiago ezagutzeko aukera bat da; eurek idatzitakoaren bitartez, pentsamolde, harreman eta zenbait bizipen antzeman daitezke-eta.



Idazlanak eskoletan landu eta gero, gehienetan irakasleak arduratzen dira batu eta bidaltzeaz. Baina internet garaian bizi garen honetan, ezinbestekoa da aukera eskaintzea idazlanok posta elektronikoz bidaltzeko. Eta horrela egiten ari dira azken urteotan antolatzaileak. Aurtengo lehiaketan, ordea, posta elektronikoko helbide berria sortu dute, hauxe:

**julenezpeitia@durango-udala.net.**  
Buletinoko txoko honetatik gonbidapen zuzena bidaltzen dizuegu denei, gazte eta nagusiei orri zuriaren aurrean (berdin pantailakoa zein paperezkoa) jarri eta barruko suhar hori ipuin, olerki edo bertso bihurtzeko.

## Ondorengo asteetarako AGENDA

Proposamen mordoak daukagu ondorengo egunetarako. Hartu arkatzak, zabaldu agendak eta apuntatu gustukoak!

### • Martxoak 28 (zapatua)

Barreterapia ikastaroa.  
Lekua: Ibaizabal ikastola.  
Orduetgia: 10:30-13:30 eta 15:00-18:00

### • Martxoak 29 (domeka)

Olgetan ikuskizuna.  
Eriz magoa.  
Lekua: Plateruena Kafe Antzokia.  
Ordua: 17:30

### • Martxoak 30 (astelehena)

Martxoak 31ko ekitaldien barruan  
"Los niños de Rusia" filma.  
Lekua: San Agustin Kultur Gunea.  
Ordua: 20:00

### • Martxoak 31 (martitzena)

Martxoak 31ko ekitaldi nagusia Oroimen ekitaldia.  
Lekua: Andra Mariako elizpea.  
Ordua: 20:00

### • Apirilak 2 (eguna)

Film laburren IV. edizioa.  
Lekua: Plateruena Kafe Antzokia.  
Ordua: 20:00

### • Apirilak 4 (zapatua)

Korrikak Durango zeharkatuko du eta Berbarok testigua hartuko du, nola ez.

### • Apirilak 26 (domeka)

Olgetan tailer berezia.  
Lekua: Plateruena Kafe Antzokia.  
Ordua: 17:30

Informazio gehiago:  
**www.berbaro.com**  
web gunean.

## Topagunea eta Kultur errotaren alde, SINATU



Azken urteotan Topagunearekin izandako hitzarmena ez du berritu aurten Gipuzkoako Foru Aldundiak.  
Erabaki honek Kultur errotari zuzenean eragiten dio eta, ondorioz, baita euskera elkarteoi ere.

Egoera hau salatzeko, Topaguneak hainbat ekimen egin ditu, besteak beste, sinadura bilketa sarean.

**Sinatzeko: [www.topagunea.org](http://www.topagunea.org)**

argitalpen berriak

Ohiturak ohitura, huts egin barik dakarkigu atal honetarako argitalpen berriak. Egia esan, ez da beti erreza egiten argitalpen berriak aukeratzea, zenbaitetan gutxi argitaratu delako edo erakusleho honetan denentzako lekurik ez delako, besteetan. Oraingoan, lehenengo eta behin, Berbarok enkarguz egindako azterlan bat aurkeztu gura dizuegu: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren **"Euskararen egoeraren azterketa"**, 2009ko urtarrilean amaiturikoa. Interesa duzuenok jakizue txostena eskuragarri dagoela elkartearen. Bestalde, martxoaren 16an Bidegileak bildumako 53. eta 54. sortak argitaratu ditu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS). Oraingoan politikari euskaltzale eta bertsolariek osatzen dute bilduma: Antero Apaolaza, Federico Baraibar, Louis Dassance, Julene Urzelai, Martin Treku 'Mattin', Justina Aldalur, Joxe Miel Iztueta 'Lazkao Txiki' eta Miel Arozamena.

HPSk bultzatzen duen Bidegileak bildumaren bidez, euskalgintzan aitzindari izan diren pertsonak eta taldeak ezagutzera eman nahi dira, bidegile horien pentsaera, bizitza eta lana modu ulergarrian eta atseginean kaleratuz. Liburuxka berri hauek paperean zabalitzeaz gain, www.euskara.euskadi.net helbidean ere paratuko dira kontsulta-gai, lehenago argitaratutako sortekin batera.

Amaitzeko, jakin ezazue beste azterlan interesgarri bat baduzuela elkartearen eskuragarri, hau ere enkarguz eginikoa 2008ko uztailean, **"Durangoko Udalaren Euskararen egoeraren azterketa"**, Durangoko Euskararen Plan Estrategikoa egin ahal izateko diagnostikoa, hain zuzen ere.

ikimilikili..klik

**sustatu.com** edo Interneteko albistegia. Sustatu Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta CodeSyntax Interneteko zerbitzu-enpresak 2001ean sortu zuten. Euskarazko lehen blogetakoa izan da eta, orain ere, webloga izaten jarraitzen du nagusiki. Weblog kolektiboa du, artikulua nagusiak irakurleek idatzi ditzakete. Artikulua argitaratzea edizio-taldearen esku geratzen da eta erantzunak, berriz, libreak dira. Dena dela, zuk zeuk ikusi ditzakezu web gune honek ematen dituen aukera guztiak, oso interesgarria benetan.

**guraso.com** edo gurasoen premiak asetzeko gunea. Egia esan, web gune honek ez du aurkezpen askorik behar, izenak berak nahikoa esaten baitu. Bertan, albisteak, artikulua, agenda, argazki galeria eta zorion agurrak topa daitezke. Ekimen hau, Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Txatxilipurdi elkarteak sortutakoa da. Euren esanetan, "gaurko gurasoak -gurasogaik batez ere- egarri dira informazio berezitzuz elika ditzagun. Premia horri erantzun nahian, baliabide egokiak bilduko dituen web gunea sortzeko apustua egin dugu". Hauxe da ba, web gunearen helburua.

Egia da euskarak baduela lekua interneten, baina errealitate horrek mundura zabaldu behar da, eta horretarako domeinu propioa behar du.

**puntueus.org** edo euskara eta euskal kultura interneten.

"Ikur hori euskara eta euskal kultura sustatzeko tresna izango da eta, hori horrela, .EUS domeinua mundu mailako hizkuntza normalkuntzarako tresnatzat ulertzen dugu: .EUS domeinuak, Interneteko espazio birtualean, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen baitu" diote sortzaileek.

Askok eman diote atxikimendua. Eman ezazu zeuk ere zeurea.



Urteko batzar nagusia



Martxoaren 14an Plateruenan batu ginen eta giro onean egin genituen batzarra eta ondorengo luntxa. Batzarrean, iaz egindakoaren berri eman genuen, urte berezi honetarako Berbarok dituen gogoei buruz hitz egin, elkartearen egoera ekonomikoa azaldu...

Bazkideok hurreratu eta esateko genituenak entzuteaz gain, galdera eta komentario mordo egin zenituzten! Hor ikusi zen bazkideok elkartearekiko duzuen interes eta ardura. Datorren urtean tarte zabalagoa eman beharko diegu galdera-erantzunei!